

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA (SALUFRUIT)**

Merkatuaren segmentazioa bezero potentzialak hainbat taldetan banatzeko metodo bat da, adina, diru-sarrerak, portaera, interesak, beharrak, kokapena... Talde horiei esker, enpresek mezu pertsonalizatuak bidal diezazkiekete audientzia zehatzei.

Beraz, erabaki dugu, bezeroen segmentazioa egiterakoan gure bezeroak hiru taldetan banatuko ditugu. Lehengo segmentazioa adinaren arabera izango da, beste segmentazio talde bat bezeroak dituzten osasun arazoak edo baldintzak kontuan hartuko ditugu, hau da, diabetesa, obesitatea, anemia... Beste segmentazio-talde batean, pertsonak, beren borondatez eta beren interesagatik, elikagai osasungarriak kontsumitzen dituzte.

### **ADINAK**

Produktuaren analisia egin ondoren, erabaki dugu makina hauek 18-70 urte bitarteko pertsonentzat bideratzea. Beste adinetakoak, konkretuki helduagoak, ez dituztelako makinak hain beste erabiltzen edota nahiago dutelako janaria benetako dendetan erostea, hala nola, supermerkatuan edo fruta eta barazki dendetan. Gainera, uste dugu, pertsona multzo honek produktu osasuntsu horiek gehiago kontsumituko dituztela umeak baino, beraiek normalean nahiago dituztelako gozokiak, zabor-janaria...

*“Adinaren arabera, 20 eta 29 urte bitarteko gazteen ia % 70ek erabiltzen ditu saltzeko makinak. 30 eta 49 urte bitartekoak ere kontsumitzaile handiak dira ( % 51), eta gutxien dituztenak 50 eta 64 urte bitartekoak ( % 31).”*

<https://www.gesvending.com/como-es-el-consumidor-de-vending/#:~:text=Por%20edades%2C%20casi%20el%2070,%2C%20con%20solo%20el%2031%25.> )

Berri honetan ikus dezakegu, kontsumitzaileen adinaren arabera eta bakoitzaren kontsumo kopuruaren arabera, banatu dezakegula 3 taldeetan. Argi ikus dezakegu gure produktua ez dagoela ezta umei ezta adineko pertsonetara bideratuta.

#### 1. Taldea: 20 eta 29 urte bitarteko gazteak:

Iragarkian ikusten dugunez, adin honen bitartekoak, makina saltzaileak gehien erabiltzen direnak dira. Denbora falta da arrazoi nagusietako bat, erosteko askatasunarekin edo kalean kontsumitzeko erraztasunarekin batera. Hau gure aukera onena da, merkatua adin hauetako jendea dauden lekuetan jartzeko, unibertsitatetan, akademietan...

#### 2. Taldea: 30 eta 49 urte bitartekoak:

Adin horretako pertsonak makina mota horretan ez erosteko duten arrazoi bat da makina gehienek ez dutela txartelarekin ordaintzeko aukerarik, eta adin horretan ez dute diru solte askorik eramaten. Gure makina saltzaileak erosleengana bideratu ahal izateko, gure makina guztiek txartelarekin ordaintzeko egokitzapena eramango lukete.

### 3. Taldea: 50 eta 70 urte bitartekoak:

Iragarkian ikusten dugunez, adin honen bitartekoak, makina saltzaileak gutxien erabiltzen direnak dira. Makinak ez dira normalean erabiltzen adin hauetan. Makina saltzaitzaileak erabiltzeko errazak ez direlako. Bestalde, adinekoek gaixotasunak garatzeko joera handiagoa dute, beraz, osasuntsu jatea erabakitzen dute.

## PAIRATUTAKO GAIXOTASUNAK

*“Espainiarrak gero eta gehiago jabetzen dira bizimodu osasuntsu bat mantentzearen garrantziaz, elikadura osasuntsuago batean zein ariketa fisikoa egitean oinarritzen dena. Hori guztia gaixotasunak prebenitzeko. Joera horrek gora egin du koronabirusaren pandemiaren aurretik ere, baina covid-19aren ondorioek milaka herritarren kontzientziazioa bizkortu dute, kontsumoa aztertzen duten enpresen arabera. Izan ere, espainiarren % 26k dagoeneko sartu ditu erosketa-saskian produktu 'osasungarriak', horien artean ekologikoak, bio izenekoak edo esnekirik gabekoak. “*

[\(https://www.20minutos.es/noticia/4680148/0/boom-por-los-alimentos-saludables-un-26-de-los-espanoles-ya-los-compra-pero-a-un-80-les-frena-el-precio/\)](https://www.20minutos.es/noticia/4680148/0/boom-por-los-alimentos-saludables-un-26-de-los-espanoles-ya-los-compra-pero-a-un-80-les-frena-el-precio/)

Albiste honetan ikus daiteke Espainiako biztanleria, pandemia ondoren, konturatu dela ezinbestekoa dela osasungarri jatea. Ikusi dutelako gaixotasunak ez pairatzeko hobeagoa dela osasuntsu jatea. Biztanleriaren 26% jateko modu hau martxan jarri du bere egunerokoan.

Dieta osasungarri batek nutrizio txarra ez izatea laguntzen digu, baita gaixotasun batzuetatik ere, haien artean, diabetesetik, kardiopatietatik, istripu zerebrobaskularretatik eta minbizitik.

Gure produktua diabetesa pairatzen duten pertsonen bideratuta dago, dakigunez diabetesa gaixotasun metaboliko kroniko bat da, odoleko glukosa-maila altuak (edo odoleko azukrea) dituen, eta, denborarekin, kalte larriak eragiten ditu bihotzean, odol-hodietan, begietan, giltzurrunetan eta nerbioetan. Beraz medikuek gomendatzen dute janarari osasungarria jatea, bere glukosa mailak eta azkurea odolean erregulatzeko. Beraz gure makinak honekin bat egiten dute.

Obesitatea sahiesteko, medikuek dieta osasuntsu bat jatea gomendatzen dute, zure pisua zaintzen ez baduzu hainbat gaixotasun garatu ahal dituzulako, hala nola, loaren apnea, hipertentsioa, minbizi mota batzuk, artrosia, dislipemia eta ugalkortasun arazoak eukitzea haurdun geratzean. Gaixotasun horietako askok hiltzera eramaten zaitzakete. Horregatik, medikuek dieta osasuntsua eta orekatua izatea gomendatzen dute eta hau errezago egiteko gure makina saltzaileak daude.

*“2013an, Osasunaren Mundu Batzarrak bederatzi xede adostu zituen transmititu ezin diren gaixotasunak prebenitzeko eta kontrolatzeko. Helburu horiek diabetesaren eta obesitatearen igoera gelditzera bideratuta daude, eta % 30eko murrizketa erlatiboa lortzea gatz hartzean, hemendik 2025era”*

[\(https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/healthy-diet \)](https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/healthy-diet)

Elikadura gatz gehiegi edukitzeak arteria-presioarekin arazoak garatzera eraman zaitzake; horregatik, gure makina zaltzaile oso soluzio ona da gaixotasun horrentzat.. Hori saihesteko, hobe da elikadura osasuntsuago batera aldatzea. Bertan janaria gehi dezakezu, hala nola frutak, azukre gutxiko zuku naturalak, barazkiak... Gure produktuak jateko prest dauden elikagai horiek erosteko aukera ematen dizu.

C bitaminan aberatsa den elikadura osasuntsu batekin, gure produktuarekin lor daitekeena, Anemia gaixotasuna saihesteko modu argia da. Populazio orokorrean, animalia-jatorriko burdina duten elikagaiak (haragiak eta arrainak) eta C bitamina duten frutak eta barazkiak aldizka barne hartzen dituen dieta askotarikoa eta orekatua kontsumitzeak anemia prebenitzen laguntzen du.

*“Badira gaixotasun hori gainditzeko lagungarriak diren substantzia nabarmenak C bitamina daukatena dira, hala nola kiwi, marrubiak, mango...”* Zaindu Plus orriko endokrinologoaren arabera. Fruta hauek, besteak beste, gure makina saltzailean salduko ditugu.

(<https://cuidateplus.marca.com/alimentacion/nutricion/2020/05/04/comer-sufro-anemia-173334.html> )

## **NORBANAKO ERABAKIA OSASUNTSU JATEN**

Gaur egun, normalagoa da osasuntsu jatea, gizartearen kopuru handi batek ez baitu bizimodu osasungarririk izaten, kezka handia sortzen die. Biztanleriaren zati bati, modak osasuntsu jatea eragiten du, baina modu batera edo bestera, osasuntsu jaten dute, eta bizimodu osasungarriak garrantzi handiagoa du gizartearen artean.

Espainiako osasuntzu jan nahi duten biztanleria kopurua urtero igotzen da, eta horren berri eman dezakegu: *“Espainiarren ia % 75ek uste du elikadura osasungarria dela, hau da, aurreko urtean baino ia % 2 gehiago, Aegon III. Osasun eta Bizimodu Azterketaren arabera. Azterketa horretan, espainiarren osasun-egoera, bizimodua eta osasunarekin eta ongizate emozionalarekin lotutako ohiturak eta jokabideak aztertzen dira.”*

(<https://www.infosalus.com/nutricion/noticia-mayoria-espanoles-considera-dieta-saludable-20210302171248.html>)

Berri hau esaten duen moduan, gero eta pertsona gehiago erabakitzen du osasuntsu jatea eta dieta jakin bat jarraitzen dute, dieta hauek fruta, barazkiak, arrainak... janari oinarri dute. Bizimodua kalitate hobeagoa izatea eragiten du, beraz gure produktua gehien bat pertsona hauentzat bideratuta dago. Eta janari osasungarriaren joerarekin bat egin duten pertsona guztientzat.